

Animali Leku - Funtsezko Jarduerak

1. Animalien Zaintza eta Ongizatea

Animaliak zaindu eta haien osasuna eta ongizatea bermatzea lehentasunezkoa da. Jarduera honek elikadura, higiena, osasun-zaintza (albaitariak eta tratamenduak) eta ingurune seguru eta egokitu baten mantentzea barne hartzen ditu. Jarduera hau ezin da kanpoko enpresen esku utzi, kalitatezko arreta zuzena bermatu behar baita.

2. Bezeroen Arreta eta Harremana

Bezeroen beharrei erantzun zuzena ematea ezinbestekoa da. Honen barruan, erreserba eta kontsulta kudeaketa, bisiten koordinazioa, eta bisita pertsonalizatuen diseinua daude. Harreman ona eta bezeroak fidelizatzea negozioaren arrakastarako giltza da.

3. Kudeaketa Ekonomikoa eta Administrazioa

Enpresaren finantza-kudeaketa, kontabilitatea, gastuen eta diru-sarreraren kontrola, eta baimen eta administrazio-lanak modu eraginkorrean egitea garrantzitsua da negozioa jasangarria izateko. Hau, beharrezkoa bada, kanpoko aholkulari edo enpresa baten esku utz daiteke.

4. Marketin eta Komunikazioa

Negozioaren ikusgarritasuna eta balio-proposamenaren zabalkundea ezinbestekoak dira bezeroak erakartzeko. Sare sozialen kudeaketa, promozio-kanpainak, eta ekitaldien antolaketa funtsezko jarduerak dira. Jarduera hau barnean edo kanpoan egin daiteke, aurrekontuaren arabera.

Lehentasunezko jarduerak zaintzarekin eta bezeroen arretarekin lotuta daude, negozioaren oinarria osatzen dutelako. Beste jarduerak (kudeaketa ekonomikoa eta marketina) horiek sostengatzeko ezinbestekoak dira.